



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO BIGARREN HEZKUNTZAKO
IKASTETXEEI ZUZENDURIKO HONDAKINEI BURUZKO KANPAINA
2021-2022 IKASTURTEA

EKIN!

**PLANETAK EZ DITU HEROIAK BEHAR,
ZU BEZELAKOAK BAIZIK**



AURKIBIDEA

1_ SARRERA OROKORRA

2_ COVID 19-aren aurrean aplikatu beharreko prebentzio neurriak

3_ HELBURU OROKORRAK

4_ HARTZAILEAK

5_ PROZEDURA

6_ KANPAINAREN GARAPENA

6.1. Jarduera

6.2. Unitate didaktikoak (ikasle eta irakasleentzat)

6.3. Aholkularitza zerbitzua

6.4. Egutegia

7_ Balorazioa

1. Sarrera orokorra

Gure gizartean ingurumen kontzientzia geroz eta gehiago zabaltzeko asmotan Tolosaldeko Mankomunitateak gaikako bilketa eta birziklatzea bultzatu izan du hasieratik, baina gauzak asko aldatu dira garai bateko edukiontzietatik gaur egungo bilketa bereiztuetara iritsi arte. Baita sortzen dugun zabor kantitatea ere! Ustez denok gutxi edo gehiago birziklatzen dugu, baina ondo egiten al dugu? Zabor asko sortzen al dugu?

Zalantza batzuk baditugu oraindik eta hauei erantzuna emateko kanpaina ugari antolatu eta burutu dira Mankomunitatean, herritarrei orokorrean zuzenduak, ostalariei, dendariei, ikasleei... beti ere hondakinak gutxitzeko edo sortutako hondakinak egoki sailkatzeko asmotan. Guztion parte hartzea ezinbestekoa da eta horretarako gizarte osoaren hezkuntza beharrezkoa da.

Kontuan hartuz ingurumen-hezkuntza prozesu jarraia dela eta ikasleria gaur egungo eta etorkizuneko etxeetako hondakinen kudeatzailea dela, modu egokian sailkatzearen garrantziaz jabetzeko eta eskola komunitateak dituen zalantzak argitzeko Tolosaldeko Mankomunitateak berriro kanpaina bat gauzatuko du Ecoembes eta ECOVIDrioren laguntzarekin. Asmo horrekin, ikastetxeetan, bereziki prebentzioa, birziklapena eta gaikako bilketako lerro horia landu nahi dira.

Ikasleen arreta pizteko helburuarekin, jarduerak ikasleentzat interesgarriak izango diren ikuspuntuetatik abiatuko dira.

2. COVID-19aren aurrean aplikatu beharreko prebentzio-neurriak

COVID-19 pandemiaren inguruan bizi dugun egoerak eragin zuzena du kanpainaren garapenean. Halaber, ikasturte honetan ere erabat bideragarritzat jotzen da kanpaina burutzea. Kanpainako jarduera bakoitza sakon berrikusi da, eta egokitzen jo diren ekintzak aldatu edo egokitu dira, parte-hartzaile guztien prebentzioa eta segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (agintaritza eskuduna) orain arte argitaratutako dokumentu guztiak aztertu eta kontuan hartu dira, 2021/22 ikasturte honetan jarraitu beharreko arau eta gomendioekin batera. Proposatzen den kanpaina bat dator indarrean dagoen araudiarekin, eta baldintza guztiak betetzen ditu: maskararen erabilera, higiene neurriak zorroztea eta kontaktua mugatzea.

ARTELATZ Ingurumen Zerbitzuak SL enpresak konpromisoa hartzen du indarrean dauden protokoloak zorrotz betetzeko, langileen eta kanpainako jardueretan parte hartzen duten pertsona guztien osasunaren prebentzioa bermatzeko. Beste neurri

batzuen artean, ingurumen-hezkuntzako taldeko langileek egunero hartuko dute tenperatura etxetik irten aurretik, eta sukarra izanez gero edo COVID-19 gaixotasunari lotutako sintomak sentituz gero, ez da lanera joango, eta enpresari jakinaraziko zaio beste pertsona batek ordezkatzeko behar adina denboraz. Maskara une oro eramango dute, eskuak maiz garbituko dituzte, eta jarduera bakoitzean desinfektatutako materialak erabiltzeaz arduratuko dira.

Ikastetxeko jarduerak garatzean, jarraitu beharreko oinarritzko premisak honako hauek izango dira:

- Lan-unitatea beti eskolako ikasgela bat izango da, ez dira nahastuko eta ez dira hainbat klasetako kideak trukatu.
- Jarduera guztietan, parte-hartzaile guztiek musukoa eramango dute eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantendu beharko da.
- Ikasleen artean materialak partekatzea saihestuko da.
- Erabiltzen diren materialak eta euskarriak garbi eta desinfektatuta egongo dira saio bakoitzerako.

Ikastetxeren batek ezin baditu jarduerak egin egutegian aurreikusitako prebentzioagatik, berrogeialdiagatik edo langile espezialistak ikastetxera sartzeko mugagatik, ARTELATZ enpresak konpromisoa hartzen du egutegiko beste aukera batzuk eskaintzeko 2020/21 ikasturtean zehar.

3. Helburu orokorrak

Kanpaina honetan lortu nahi diren helburuak ondorengoak dira:

- Egungo **gizarte kontsumistak aldaketa** baten beharra duela jabetzea eta aldaketa horretan **ikasleak protagonista** aktiboak direla sinestea.
- Hiri-hondakinen inguruko ezaguerak zabaltzea, hiri-hondakinen inguruko **murrizketa, berrerabilera eta birziklapena** azalduz.
- **Edukiontzi horiaren bilketan** atera behar diren **hondakinak ondo ezberdintzea**.
- Guztiok hondakinen arazoan konponbidean dugun protagonismoaz jabetzea, hau da, hondakinen sorreran, berrerabileran eta gaikako bilketan parte hartzeaz norberak duen garrantziaz eta hondakinek suposatzen duten **arazoak kontzientziatzea eta sentsibilizatzea**.
- Tolosaldea Mankomunitateko **bilketa lerro ezberdinak ezagutu** eta birziklapenak sortzen dituen **onuraz jabetzea**.
- Parte-hartzaileengan estimulu bat sortaraztea, **jokabide-ohituren aldaketa** eman dadin.
- Partaideen artean, ingurumenarekiko orokorrean eta bereziki hiri-hondakinen gaikako bilketaren **aldeko jarrerak sustatzea**. Plastikoen/mikroplastikoen arazoaz, ondorioez eta gai honetan norbanakoak duen garrantziaz jabetzea.
- Ikasleria eta irakasleria **gizarte-partehartzean suspertzea**, kontzienteki parte hartzen duten ingurumen kultura berriaren bozeramailea eta eragile biderkatzaile bihurtuz.
- Ikasle bakoitzak bere herrian dituen hondakinak gaika biltzeko sistemaren ezaguera zabaltzea eta jorratu.

- Kalitate goreneko zerbitzua betetzea
- Parte-hartzaileen segurtasuna zaintzea, Eusko Jaurlaritzak eta parte hartzen duten ikastetxeek COVID 19 koronabirusak sortutako gaixotasuna ez kutsatzeko ezarritako protokoloek zorrotz jarraituz.

Aurrez adierazitako helburuak, bat datoz Nazio Batuek 2030 Agendan zehaztutako Garapen Iraunkorrerako 3 helburuekin:



4.- HELBURUA: GUZTIONTZAT KALITATEZKO HEZKUNTZA INKLUSIBOA NAHIZ BIDEZKOA BERMATZEA ETA ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO AUKERAK BULTZATZEA

4.7.- Helmuqa: Hemendik 2030 bitarte, ikasle guztiek garapen iraunkorra bultzatzeko beharrezkoak diren ezagutza teoriko nahiz praktikoak hartu dituztela seguratzeko, besteak beste, garapen iraunkorrari eta bizitzeko molde iraunkorrari, giza eskubideei, genero berdintasunari, bake eta ez bortxakeriaren kulturaren sustapenari, mundu osoko hiritarren eta kultur dibertsitatearen balorazioari eta kulturak garapen iraunkorrari egiten dion ekarpenari buruzko hezkuntza eskainiz.



11.- HELBURUA: HIRIAK ETA GIZA KOKAGUNEAK INKLUSIBOAK; SEGURUAK; ERRESILIENTEAK ETA JASANGARRIAK IZATEA LORTZEA.

11.6.- Helmuqa: 2030 urteari begira, hirietako ingurumen eragin negatiboa per capita murriztea, aire kalitateari eta udalerriko hondakinen nahiz eta beste mota bateko hondakinen kudeaketari arreta berezia ere eskainiz.



12.-HELBURUA: KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE JASANGARRIAK BERMATZEA

12.5.- Helmuqa: 2030 urteari begira, hondakinen sorkuntza hein handi batean murriztea prebentzio, murrizketa, birziklatze eta berrerabilpen jardueren bidez.

12.8.- Helmuqa: 2030 urteari begira, mundu osoko pertsonek garapen iraunkorrerako beharrezkoak diren informazio eta ezagutza eta naturarekin harmonian dauden bizimoldeak izan ditzatela segurtatzea.

4. Hartzaileak

Ingurumen-hezkuntzako kanpaina honen hartzaile zuzenak Tolosaldea Mankomunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, 3. edo 4. mailako (maila bateko, ikastetxe bakoitzak aukeratuko duena) ikasle eta irakasleak dira. Guztira, 11 ikastetxe eta 33 talde (iazko datuak kontutan hartuz).

HERRIA	IKASTETXEA	GELA KOPURUA	
		DBH 3.maila	DBH 4.maila
Alegia	IES Aralar BHI	2	
Andoain	Aita Larramendi ikastola	3	
	La Salle Berrozpe	3	
	IES Leitzaran BHI	2	
Anoeta	Ikastola	2	
Ibarra	Uzturpe Ikastola	2	
Tolosa	Herrikide-eskolapioak	4	
	Laskorain ikastola	4	
	IES Orixe BHI	5	
Villabona	Zubimusu Ikastola	2	
	IES Erniobea BHI	4	

Ekin kanpainako 3. edizioa denez, kontutan hartu behar da zein taldek hartu zuen parte iaz, ikasleentzat saio errepikatua izan ez dadin. 2020-2021 ikasturtean parte hartu zuten ikastetxe guztiek DBH 3ko gelak aukeratu zituzten kanpainako partehartzaile gisa.

5. Prozedura

Tolosaldeko Mankomunitatean dauden Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako **ikastetxe guztiekin harremanetan** jarriko gara kanpaina azaldu eta parte hartzera animatuz. Horretarako, Eskolako Agenda 2030eko bilerak aprobetxatuko dira.

- Tolosa eta Toolsaldeko Eskolako Agenda 20-30 bilera: AZAROAK 10an
- Andoaingo Eskolako Agenda 2030 bilera: AZAROAK 25ean

Izen-ematea kanpainarako espreski sortu den formulario bat osatuz egingo da. Telefonoz edo helbide elektronikoz ere egiteko aukera izango da. Izen-ematea egin eta ikastetxe bakoitzak arduradun bat izendatu behar du. Ondoren arduradunekin, egutegia eta ordutegia zehaztuko da eta ondoren, material didaktikoa helaraziko zaio berau lantzeko gonbitarekin batera. Unitate didaktikoen lanketa ekintzen aurretik edo ondoren egin daiteke.

Parte hartzen duten ikastetxeetara jarduera bakoitza baino egun batzuk lehenago telefonoz deituko da, parte-hartzea gogoratu eta azken xehetasunak finkatzeko. Azkenik, hezitzaile taldea ikastetxera iritsi eta **ordu bat eta erdiko iraupena** duen saio bat garatuko dute talde bakoitzarekin.

Koronabirusaren aurrean jarduteko Eusko Jaurlaritzak argitaratutako protokoloak (SARS-CoV-2) ezartzen duen bezala, planteatutako jardueretan bereziki zainduko da materialen garbiketa eta desinfekzioa. Gainera, musukoa erabiliko da jarduera guztietan eta une oro eta ikasle bakoitzak **eskuak desinfektatuko ditu gel hidroalkoholikoarekin saio bakoitzaren hasieran eta amaieran.**

Gainera, ikastetxeetara hurbiltzen den hezitzaile taldeak jarduera gauzatzeko behar den material guztia eramango du, baita ordenagailu eramangarria ere, ikastetxeko materiala ez partekatzeke, koronabirusa kutsatzea saihesteko eta zentroan desinfektatu beharreko material gutxien sortzen saiatzeko.

Ebaluaketak ere garrantzi handia du eta ikasle/irakaslegoari, kanpaina bukatu ostean, kanpainaren inguruko antolaketa, hezkuntza-lana, garatutako ekintzak, erabilitako metodologia, kanpainaren eraginkortasun maila, asebetetze maila eta hobetzeko proposamenen inguruko inkesta betetzea eskatu zaie.

Edozein informazio osagarri edo zalantzak argitzeko, aurkezpen txostenean kanpainako arduradunekin harremanetan jartzeko telefono edo helbide elektronikoak izango dituzte eskura: 943 67 06 37 // 615.74.92.07 edo ekinkanpaina@gmail.com aialaezeiza@artelatz.eus

6. Kanpainaren garapena

6.1 Jarduera

Ondoren deskribatzen den saioa (bere jarduera eta materialekin) Tolosaldea Mankomunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako DBHko 3 edo DBH 4ko (ikastetxeak maila bat aukeratu behar du) gela bakoitzean garatuko dela.

Tailerraren ezaugarriak hauek dira:

- Iraupena: Ordu bat eta erdikoa.
- Lekua: ikasgela
- Beharrezkoa materialak: ordenagailua, kañoia edo arbel digitala, interneterako sarrera
- Metodologia: partehartzailea ariketa simulatuekin.

**Ez da materialik elkarbanatuko ikasleen artean COVID 19aren aurkako prebentzio gisa.

Edukiak:

- **SARRERA:**
Gizarte mota
- **MURRIZKETA:**
 - Kontsumoa gehitzeko estrategiak
 - Aldaketa beharra
- **BERRERABILERA:**
 - Baztertzen ari garen ohitura
- **BIRZIKLAPENA:**
 - Jakingo al zenuke hondakin bakoitzaren helmuga zein den ?
 - Errepaso orokorra eta akatsen zuzenketa
 - Edukiontzia ondorengo bizi-tza : produktuen bizi-zikloa
 - **KAHOOT APLIKAZIOA:** kontzeptuen errepaso
 - **MENTIMETER:** Ikasleen balorazioa

6.2 Unitate didaktikoak

Kanpainari balio erantsia ezartzeko, irakasleei zein ikasleei zuzenduriko hezkuntza materiala sortuko dugu. Ikastetxe guztiek hezitzaileek egindako bisita aurretik edo ondorenean ikasle zein irakasleen materialak lantzeko aukera izango duzue.

Material guztia era digitalean (pdf betegarriak erabiliz) proposatzen da inprimatze lanaren kostua eta paper kontsumoa murrizteko. Horretarako material hezigarria sortzeaz gain era digitalean landu ahal izateko aukera luzatuko da. Materiala, ikastetxean kanpainako kontaktua den pertsonari zuzenean helaraziko zaio.

- **Irakasleriari zuzenduriko materiala:** Gaiaren inguruan orokorrean eta ikasleekin materiala lantzeko informazioa eta aholkularitza eskaintzen dugu.
- **Ikasleriari zuzenduriko materiala:** Material teoriko-praktikoa da. Oinarrizko kontzeptuak: hondakinen murrizketa, berrerabilpena, birziklapena (zer da birziklatzea, zer nun bota, gaikako bilketa lerro ezberdinak erakutsi, zer da ontzia izatea...) ezagutzeko lan-fitxa.

6.3 Aholkularitza zerbitzua

Kanpainan zehar, edozein galdera, iradokizun edo zalantza argitzeko, kanpainako telefonoa 943.67.06.37 / 615.74.92.07 eta helbide elektronikoa (ekinkanpaina@gmail.com) irakaslegoaren esku geratzen dira.

6.4 Egutegia

Kanpaina urtarrilaren 17an hasi eta otsailaren 23 arte burutu ahal izango da (salbuespenak egon daitezke). Egutegia ikastetxe bakoitzeko arduradunekin adostuko da.

7. Balorazioa

Ikastetxe bakoitzean jarduera bukatzean, bertako irakaslegoari kanpainari buruzko balorazioa betetzeko eskatuko zaizue hobetze prozesu jarraia planteatuz. Ikasleei ere saioak bukatu ondoren balorazio bat eskatuko zaie.